

**GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK ALDI BATEZ BABESTEKO  
EUSKAL PROGRAMA**

**JARRAIPENeko MISIOA**

**KOLONBIA 2015**

**III. Euskal Ordezkaritza**

Urtarrilaren 31tik otsailaren 4ra



Oroitzapen eta Adiskidetze Zentroa, Bogotá

Hau da txosten honen egilea:

Leire Lasa



Giza eskubideen defendatzaileak aldi batez babesteko euskal programa



Bilbo, 2015

## EDUKIEN AURKIBIDEA

<b>SIGLAK .....</b>	<b>1</b>
<b>AURKEZPENA.....</b>	<b>2</b>
<b>ESKER ONAK.....</b>	<b>3</b>
<b>KONPOSIZIOA.....</b>	<b>4</b>
<b>IZANDAKO BILERAK .....</b>	<b>5</b>
<b>TESTUINGURUA.....</b>	<b>6</b>
<b>GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO ELKARTEAK .....</b>	<b>12</b>
<b>BAKE-ELKARRIZKETAK.....</b>	<b>12</b>
<b>GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEEN EGOERA .....</b>	<b>13</b>
<b><u>EGOERA ESPEZIFIKOAK: ALDI BATEZ BABESTEKO EUSKO JAURLARITZAREN PROGRAMAN</u></b>	
<b><u>HARTUTAKO PERTSONEN ERAKUNDEAK.....</u></b>	<b>15</b>
<b>HERRIEN BILTZARRA .....</b>	<b>15</b>
<b>GIZARTE-GARAPEN INTEGRALERAKO ELKARTEA (ECATE).....</b>	<b>17</b>
<b><u>ERAKUNDE PUBLIKOAK.....</u></b>	<b>19</b>
<b><u>NAZIOARTEKO ERAKUNDEAK.....</u></b>	<b>25</b>
<b><u>KONKLUSIOAK.....</u></b>	<b>26</b>

## SIGLAK

ACNUDH: Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen goi-komisarioa

ACNUR: Iheslarietako Nazio Batuen Goi Mandataria

AUC: Kolonbiako Autodefentsa Batua

BACRIM: Nabarmentzen Hasiak Diren Talde Kriminalak

CERREM: Arriskuak ebaluatu eta Neurriak Proposatzeko Batzordea

CIDH: Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarra

CoIDH: Giza Eskubideen Gorte Interamerikarra

CPI: Nazioarteko Zigor Auzitegia

CTI: Ikerketa-Talde Teknikoa (Kolonbiako Fiskaltza Nagusia)

CTRAI: Informazio Bildu eta Analizatzen Talde Teknikoa

DAS: Segurtasunerako Administrazio Saila

NZH: Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa

DNI: Kolonbiako Inteligentzia-Zuzendaritza

ECATE: Gizarte-garapen Integralerako Elkartea

ELN: Nazio Askapenerako Armada

ESMAD: Istiluen aurkako Eskuadro Mugikorra (Polizia Nazionala)

FARC-EP: Indar Armatu Iraultzaile Kolonbiarrak

FLIP: Prentsa Askatasun Aldeko Fundazioa

GVP: Hasierako Baloraziorako Taldea

MOVICE: Kolonbiako Krimenen Biktimen Mugimendua

LANE: Lanaren Nazioarteko Erakundea

SIJIN: Ikerketa Kriminalerako Saila (Polizia Nazionala)

NAFTA: Ipar Amerikako Merkataritza Libreko Ituna

UNP: Babeserako Unitate Nazionala

## AURKEZPENA

Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren bitartez, Eusko Jaurlaritzak martxan du, 2011tik, *Giza eskubideen defendatzaileak aldi batez babesteko programa*. Programa horren barruan, gobernuak Euskal Autonomia Erkidegoan hartzen ditu jazarpena eta mehatxuak jasaten dituzten gizarte-erakundeetako pertsonak edo horren arriskuan daudenak, giza eskubideen aldeko defentsan jarduteagatik. Nazioartean dituen laguntza-sareak zabaltzeko eta indartzeko asmoz, Euskadin egingo duten sei hilabeteko egonaldirako ekintza hauek proposatzen dira:

1. Ikuspegi psikosoziala: Babesaren ikuspegi integrala lantzen du, eta honako alderdi hauek sartzen dira: alderdi pertsonalak, antolamenduzkoak eta politikoak; indarkeria politikoaren inaktuengatik arreta berezia behar duten pertsonentzako laguntza psikoterapeutikoa; eta babespean dauden pertsonen zainketa, aldi batez herrialdetik irten eta sartu behar izateagatik.
2. Agenda politikoa: Programa hau gauzatzeko, politikoki eragin beharko da; aldi baterako babesak, bestela, ez du zentzu osoa izango. Hau da Euskal Autonomia Erkidegoko egonaldian egindako lanaren helburua: pertsona horiek eta haien erakundeak instituzionalki eta politikoki babesteko nazioarteko sareak zabaltzea eta indartzea. Praktikan, sare horiek babes-mekanismo bezala jarduten dute; hala, jendeak modua du lurraldean giza eskubideak babesten jarraitzeko. Horretaz gainera, programak balio du euskal herritarrei eta bertako erakunde publikoei —eta baita Espainiakoei eta Europakoei ere— erakusteko zein den giza eskubideen defentsan lanean aritzen diren erakundeen mehatxu egoerak eta zein diren haien aldarrikapenak.
3. Prestakuntza-agenda: Haien kezkak eta interesak zein diren ikusita, asmoa da prestakuntza espezializatua ematea giza eskubideen defentsaz eta sustapenez. Egin duten lanagatik aitortza jaso duten pertsonak direla kontuan izanda, txostengile gisa ere hartuko dute parte esparru akademikoetan eta sozialetan.

Programa CEAR-Euskadik koordinatzen du eta hautaketa Batzordearen bitartez, honako hauek ere sartuta daude programan: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia eta Kanpoko Ekintza Zuzendaritza, Hegoa Institutua (Euskal Herriko Unibertsitatea), Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua (Deustuko Unibertsitatea), Euskal Autonomia Erkidegoko GGKEren Koordinatzailea eta Giza Eskubideen eta Bake Hezkuntzaren Elkarleen Foroa. Gainera, ANSUR Kolektiboaren laguntza du, segurtasunarekin eta babesarekin zerikusia duten kontuak kudeatzeko.

Jasotako bi pertsona Kolonbiara itzultzearen harira, euskal ordezkari bat joan da Kolonbiara urtarrilaren 31tik otsailaren 4ra, beren egoera pertsonal eta komunitarioaren jarraipena egiteko, beren segurtasun-sarea indartzeko eta euskal gobernuaren eta antolatzaileen babesa agerian uzteko.

Txosten honetan bisitako konturik esanguratsuenak jasotzen dira. *Testuingurua* atalean, herrialdearen egoeraren ikuspegi orokorra ematen da. Giza eskubideen erakundeetatik, instituzio publikoetatik eta nazioarteko erakundeetatik jasotako informazioa ondorengo ataletan jasotzen da. Azkenik, Euskal Ordezkaritzaren analisia, balorazioak, kezka zehatzak eta gomendioak azken atalean jasotzen dira, *Ondorioak* izenpean.

## ESKER ONAK

Aldi Batez Babesteko programa eragin politikodun babes-tresna bat da, jazarpen eta mehatxu testuinguruetan giza eskubideak babesten lan egiten duten defendatzaileentzat. Horretan ahalegintzen gara Euskal Autonomia Erkidegoan babesten ditugun aldian, eta ordezkariak lurra bisitatzea proposatzen dugu.

Era berean, modu bat da euskal gizarteari erakusteko nolako egoeran aritzen diren giza eskubideen defendatzaileak liskarrak izaten diren tokietan. Eguneroko lan hori, duintasun eta ausardia laudagarri egindakoa, ekarpen baliagarria da geure eraldaketa sozialaren prozesuetarako.

Euskal Ordezkaritzak eskerrak eman nahi dizkie giza eskubideen aldeko elkarteei eta Kolonbiako gizarte- eta herri-mugimenduei ere, egindako harreragatik eta bakea eta justizia soziala lortzeko egindako salaketa eta proposamenengatik ere. Esker berezi bat eman nahi dio, era berean Herrien Biltzarrari eta Gizarte-garapen Integralerako Elkarteari (ECATE), bizitzaren eta lurraldearen alde egiten duen lan nekaezinarengatik.

Eskerrak, halaber, Kolonbiako erakundeei eta nazioarteko eragileei bisita honetan zehar laguntzeko izan duten prestutasunagatik eta eskainitako denborarengatik. Eskerrik asko jasotako informazioa kontrastatzeagatik eta herrialdean giza eskubideen defentsan ari direnen egoerari buruzko beren ikuspegia emateagatik.

Eskerrik beroena eman nahi diegu Yolima Bedoya Jaramillori eta Luz Marina Palacios Bocanegrari, beren eskuzabaltasunarengatik eta beraien borrokaren indar eta duintasunarengatik.

Azkenik, gure elkartasuna eta babesa eman nahi diegu Carlos Alberto Pedraza Salcedoren familiari, lagunei eta adiskideei. Eta baita Kolonbian bakea eraikitzeko apustua egin zutenei eta egunero apustu hori egiten dutenei.

## KONPOSIZIOA

### EUSKO JAURLARITZA

Monika Hernando Porres (Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria)

### GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO ELKARTEAK

Eneko Calle García (Paz con Dignidad)

Blanca Lucía Valencia (Paz con Dignidad)

Patricia Bárcena García (CEAR-Euskadi)

Leire Lasa Fernández (CEAR-Euskadi)

## IZANDAKO BILERAK

	<b>Bogota</b>
<b>Erakunde sozialak/ kolektiboak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nuevo Día Elkarte Soziala</li> <li>• Herrien Biltzarra</li> <li>• Gizarte-garapen Integralerako Elkarte (ECATE)</li> <li>• Justiziaren eta Bakearen Aldeko Eliz Arteko Batzordea</li> <li>• Kolonbia-Europa-AEB koordinazioa</li> <li>• Laguntza Solidarioaren Nazio Elkarte (ANDAS)</li> <li>• Giza Eskubideen Aldeko Batzorde Iraunkorra (CPDH)</li> <li>• Kolonbiako Krimenen Biktimen Mugimendu Nazionala (Movice)</li> <li>• <i>Somos defensores</i> programa</li> <li>• Kolonbiako forentse-lanaren eta laguntza psikosozialaren diziplinarteko taldea (EQUITAS)</li> <li>• Giza Eskubideen Aldeko Herritarren Batzordea - Meta</li> <li>• Prentsa Askatasunaren Aldeko Fundazioa (FLIB)</li> <li>• Mundubat</li> <li>• Paz con Dignidad</li> <li>• ANSUR kolektiboa</li> </ul>
<b>Erakunde publikoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kolonbiako Fiskaltza Nagusia</li> <li>• Kolonbiako Prokuradoretza Nagusia</li> <li>• Babeserako Unitate Nazionala (UNP)</li> </ul>
<b>Nazioarteko erakundeak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioa (ACNUDH)</li> </ul>



## TESTUINGURUA

Kolonbiak 48.133.475 biztanle ditu; horietatik % 85,94 mestizoak dira, % 10,62 beltzak, % 3,43 indigenak eta % 0,01 rom herrikoak edo ijitoak<sup>1</sup>. Guztira, 82 herri indigena daude aitortuta, eta, gaztelaniaz gainera —hizkuntza ofiziala—, beste 60 hizkuntza mintzatzen dira.

Kolonbia aberatsa da natura-baliabideei dagokienez, baina aberastasun-banaketan desoreka handiena dutenetakoa ere bada.

### **Barne-gatazka: ageriko biktimak eta biktima ikusezinak**

Herraldeak pairatzen duen gatazka politiko, sozial, ekonomiko eta armatuak 60 urte baino gehiago egin ditu dagoeneko —Latinoamerikako luzeena da—, eta horrek zifra kezagarriak ekarri ditu. Memoria Historikoko Zentro Nazionalak, honako hau dio *¡Basta ya! Colombia, Memorias de Guerra y Dignidad* txostenean: 220.000 pertsona inguru hil dira, 1958ko urtarrilaren 1etik 2012ko abenduaren 31 bitarte (hamarretik zortzi, zibilak). Txosten horretan bertan onartzen da datu horiek estimazioak direla, izan ere "*gerraren ondorio dira anonimotasuna, ikusezintasuna eta biktima guztiak onartzeko ezintasuna*".

Biktimen Arretarako eta Erreparazio Osorako Unitateak —hemendik aurrera, Biktimen Unitatea—, 2015eko apirilaren 1ean, 7.337.667 pertsona kontatu ditu gatazka armatuaren biktimatzat. Horietatik, 154.914 bortxazko desagerpenak izan dira.

Historikoki, jazarpen politikorako eta kontrol sozialerako erabili izan da bortxazko desagerpena. Azken urteetan, exekuzio estrajudizialeterako batzordearekin izan dute zerikusia bortxazko desagerpenetako askok. Nazioarteko Zigor Auzitegiak 2012ko azaroan adierazia du<sup>2</sup> "oinarri nahikoa" dagoela erakusten duena "positibo faltsu" esaten zaien horiek —hau da, indar publikoak bahitutako eta hildako pertsonak eta gudu zelaian hildako gerrillaritzat hartuak— "gutxienez indar armatuetako zenbait brigadak hartutako erabaki politikoaren ondorioz" hil zituztela, eta, beraz, "estatu politikaz" ari garela eta ikertzen jarraituko duela, politika hori maila handiagoko estatuko funtzionarioek ere sustatzen zuten jakiteko.

Bestalde, Kolonbia da barne-lekualdatze gehien izan duen munduko lurraldeetariko bat. Biktimen Unitateak dio bortxaz lekualdatu diren 6.163.315 lagun dituela zenbatuta.

Gatazkak biktima gehiago sorrarazten dira egunero, eta ondorio dramatikoak dauzka. Batez ere, emakumeengan. Zenbakiei dagokienez, lekualdatutako herritar asko eta asko emakumeak direlako, eta, kualitatiboki, lekualdatze horiek haiengan inpaktu handiagoa dutelako. Zifra ofizialik ez badago ere, 2001 eta 2009 arteko aldia aztertzen duen *Violaciones y otras violencias: Saquen mi cuerpo de la Guerra* ikerketak dioenez, urtean batez beste 54.410 emakumek jasan dute sexu-indarkeria Kolonbian. Zenbaki horiek berretsi egiten dituzte Gorte Konstituzionalaren ondorioak<sup>3</sup>, indarkeria hori "*Kolonbiako gatazkan ohiko praktika zabaldua, sistematikoa eta orokortua*" dela, alegia.

Jendea lekualdatzera bortxatzen dutenean, horren atzean sarritan lurrez jabetu nahia eta lurraldearen kontrola egoten dira, dela helburu estrategiko-militarreatatik edo dela soilki helburu ekonomikoengatik. Lurraz jabetzea eta hori erabili eta edukitzea dira Kolonbiako gatazkaren erdigune nagusia. Desplazatutako biztanleen % 52,2ri lurraz indarrez kendu zizkieten edo horiek uztera behartu zituzten. Zenbaki ofizialen arabera, azken hogeita hamar urteetan, lekualdatutako herritarrek sei milioi eta erdi hektarea baino gehiago utzi behar izan dituzte; horietako %15 nekazaritzari eta abelazkuntzari zegozkien. Bestelako kalkulu batzuen

<sup>1</sup> Kolonbiako Estatistika Administrazioaren (DANE) datuen arabera.

<sup>2</sup> Nazioarteko Zigor Auzitegia, Fiskalaren Bulegoa, Kolonbiako Egoera. 2012ko azaroko txostena, 96. paragrafoa, Sincelajoko (Sucre) Zigor-Auzitegi Berezituaren zita, Luis Fernando Borja Aristizabalen aurkako sententzia aurreratua, 2011-00004-00 erreferentzia, 2011ko ekainaren 23a.

<sup>3</sup> Kolonbiako Gorte Konstituzionalaren 092/08 Autoa.

arabera, Kolonbiako Krimenen Biktimen Mugimendu Nazionalak (Movice) dio lur-gabetze hori hamar milioi hektareakoa ere badela<sup>4</sup>.

Nekazaritzako erregaien laborantza intentsiboa denez eta garraiorako eta energia-produkzioarako azpiegitura handiak eraiki direnez, hutsarazi egin dituzte lehendik hor zeuden herrien lurraldeak (komunitate indigenenak, nekazarienak, afrikar etorkikoenak). Jendea lurrez gabetzeko metodo bat baino gehiago erabiltzen dituzte: salerosketa irregularrak, auzi faltsuen bitartez egindako transferentzia judizialak —lekuko faltsuak erabilita—, indarrez joatera behartzea eta lekuz aldaraztea, eta abar. Askotan, pertsonak ez dira joaten indarkeria dagoelako; joanarazteko erabiltzen da indarkeria<sup>5</sup>.

Espainiako Estatuak da Europako estatuetan Kolonbian diru gehien inbertitzen ari den herrialdea. Espainiako eta Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa multinazional asko negoziok dituzte Kolonbian ekonomiaren sektore estrategikoetan: hidrokarburoak, elektrizitatea, eraikuntza, banketxeak, telefonia, aseguruak eta komunikabideak.

Alde horretatik, konstituzioan hala aginduta badator ere, herri indigenei eta afrikar etorkia duten komunitateei oraindik ez diete kontsultatzen beren lurralde kolektiboetarako pentsatuta dauden proiektuez.

### **1448 Legea, Biktimei eta Lurak Itzultzeari buruzkoa**

2011ko ekainaren 10ean onartu zuen Juan Manuel Santosen gobernuak *1448 Legea, biktimei eta lurak itzultzeari buruzkoa; haren bidez, neurriak ezarri ziren barne-gatazka armatuaren biktimen arretarako, laguntzarako eta erreparazio osorako, eta beste xedapen batzuk idatzi ziren*. Lege horrekin, Biktimen Unitatea, Memoria Historikoaren Zentro Nazionala eta Lurak Itzultzeko Unitatea sortu ziren.

Horrela trantsizio-justizia egingo balitz bezala aurkeztu zuten proiektu hura, baina *biktima* kontzeptuari denbora-muga ezarri zitzaion, eta kanpoan utzi zituen 1985eko urtarrilaren 1a baino lehenagoko biktimak eta 1991ko urtarrilaren 1a baino lehenago haien lurretatik bota zituztenak.

Hasiera batean, gobernuak uste zuen 2015eko amaierarako 150.000 sententzia emango zirela lurak hasierako jabeek itzultzeko. 2014ko irailera arte, ordea, 1.546 sententzia baino ez dira eman, jaso diren eskaerak ia 68.000 izan diren arren. 2013ko irailean, Gobernuak lege honen arabera emandako sententziengatik beren lurretara itzuli ziren hiru familiaren kasuak baino ezin zitzakeen baieztatu<sup>6</sup>.

Lurak eskatzen dituzten lekualdatutako pertsonak eta lurren itzulpenaren liderrek mehatxuak eta indarkeria jasaten dituzte orain ere, eta gehienetan zigorrik gabe geratzen dira ekintza horiek.

Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioaren (ACNUDH) arabera, "*Lur-itzulpenarako liderren aurkako heriotza-mehatxuen eta horrekin lotuta dagoen zigorgabetasunaren arazoari gogoz ekin behar zaio*". Choco bezalako eskualdeetan dagoen zigorgabetasuna nabarmendu du, komunitateei beren lurretara itzultzea galarazten diena.

### **Justiziaren eta Bakearen Legea**

Bederatzi urte pasa dira 2005eko 975 Legea edo Justizia eta Bakearen legea delakoa promulgatu zutenetik, baina talde paramilitarren desmobilizazioa lortzea helburu zuen lege

---

<sup>4</sup> CEAR-Euskadi. *Contra el despojo. Capitalismo, degradación ambiental y desplazamiento forzado. Análisis de los casos de Colombia y Ecuador*. Bilbo, 2012.

<sup>5</sup> Idem

<sup>6</sup> Human Rights Watch, 2015eko Munduko Txostena, Kolonbiari buruzko kapitulua. 2015eko urtarrila.

honen aplikazioa oso motela izan da eta gabezia asko izan ditu. Lege honek zigor-murrizketa handiak eskaintzen dizkie desmobilizatutako paramilitarrei.

Prozesuak egiaren eskubideari dagokionez aurrerapen batzuk ekarri dituen arren —fiskaltzaren datuen arabera, 51.906 biktima eragin dituzten 39.546 krimen aitortu dituzte paramilitarrek; horien artean, hilketak 25.757, eta sarraskiak 1.046—, esparru legal hori, *de facto*, amnistia bat izan da desmobilizatu ia guztientzat eta kondenatu apurrentzat; izan ere, bost eta zortzi urte bitarteko zigorrak ezarri zaizkie, gizateriaren aurkako delituetan izandako erantzukizunengatik<sup>7</sup>. 2014ko irailera arte, datu ofizialen arabera 30.000 paramilitar desmobilizatu dira, baina horietatik 37 baino ez dituzte kondeantu.

Azken urteetan agerian geratu da garai bateko talde paramilitarrekin bat datozela gobernuak BACRIM deritzanak (Nabarmentzen Hasi Diren Talde Kriminalak). Askok aktibo jarraitu zuten eta talde berrietan berrantolatu ziren, gehiegikeriak, hilketak, desagerepenak eta sexu-indarkeria egiten jarraituz. Kolonbiako 31 eskualdetako 406 udalerritan presente daude talde kriminal horiek, eta haien buruan, Kolonbiako Autodefentsa Batuetako (AUC) antzinako buruzagiak daude. Kolonia osoan ekintzak egiteko gaitasun operatibo handia dute.

### **Bake-elkarrizketak**

Kolonbiako Gobernuaren eta Kolonbiako Indar Armatu Iraultzaileen (FARC-EP) elkarrizketek markatu dute Kolonbiako agenda politiko eta soziala. Elkarrizketa horiek Oslon hasi ziren (Norvegia), 2012ko urriaren 18an, eta egun, Habanan egiten ari dira (Kuba).

Agendak bost eztabaidagai ditu: "Nekazaritza-garapen osorako politika", "Parte-hartze politikoa", "Legez kanpoko drogen arazoarentzako konponbidea", "Gatazkaren amaiera" eta "Biktimak". Lehen hiru puntuetan adostasunak daude eta azken bietan negoziazioek aurrera jarraitzen dute. "Biktimak" atalari dagokionez, urtebeteko elkarrizketak egon dira orain arte. "Gatazkaren Amaiera" atala azkenerako utzi da, akordioak betetzen direla egiaztatzeko martxan jartzen diren mekanismoekin batera tratatzeko.

2014ko urtarriletik Gobernuaren eta Nazio-Askapenerako Armadaren (ELN) arteko esploraziozko elkarrizketak egon diren arren, ez zaie oraindik hasierarik eman negoziazio formalei. Santos Presidenteak elkarrizketa formalak 2015ean hasiko zirela iragarri zuen. ELNk, bestalde, agenda zehazteko puntu bakarra falta dela baieztatu du.

Gizarte Zibilak, berriz, hainbat eskari egin ditu, justizia soziala ekarriko duen bake iraunkorra lortzeko: bi aldeek su-etena egitea; estatuaren funtzionamendu-egitura aldatzea; zigorgabetasunaren aurka borroka egitea; paramilitarismoa desagitea; ELNrekin prozesua formalari hasiera ematea eta Egiaren Batzordea sortzea, Kolonbiako historiaren gutxieneko bertsio bateratua iristeko. Horrek ez luke Kolonbiako Gobernuaren betebeharra ordezkatu, herrialdean jasandako indarkeriaren arduradun nagusiak epaitzeko.

2015eko otsailean, Gatazka Armatuaren eta Biktimen Batzorde Historikoak txosten bat aurkeztu zuen, *Kolonbiako gatazka armatua ulertzeko ekarpenak* izenpean. Lan horretan, indarkeriaren kausak eta ondorioak aztertzen dira eta etorkizunean sortuko den Egiaren Batzordearentzako abiapuntua izango da.

### **Zuzenbide penal militarra**

Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrak adierazi duenez, Kolonbian zigorgabetasuna "*egiturazkoa eta sistemikoa*" da<sup>8</sup>. Hori indartu egingo da Zuzenbide penal militarren

---

<sup>7</sup> ODHACO (Giza Eskubideen Aldeko Nazioarteko Bulegoa), 2013ko apirila; ACNUDH, Kolonbiako Giza Eskubideen Egoera, 2013ko txostena.

<sup>8</sup> Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarra. Kolonbiako Giza Eskubideei buruzko hirugarren txostena, Amerikako Estaturen Erakundeko (AEE) dokumentua (OEA/Ser.L/V/II.102, 9. ber. dok. 1, 1999ko otsailak 29, 14. par.).

zabalpena onartzen bada, Indar Publikoek egindako eskubide-urraketak justizia penal militarrek epaitzena baitu helburu zabalpen horrek.

Kolonbiako Konstituzioaren 221. artikulua ezartzen du Zuzenbide Penal Militarra. Bertan adierazten da Indar Publikoetako kodeek egindako delituak "zerbitzu aktiboan eta zerbitzu horrekin zerikusia" badute, Tribunal Militarrek epaituko dituztela.

2010ean, Kode Penal Militarren erreforma eta gero, erabaki zen ezingo zirela zerbitzu aktiboarekin lotu honako delituak: tortura, genozidioa, bortxazko desagerpena, gizateriaren kontrako krimenak edo Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren (DIH) kontrakoak.

Xedapen hauek militarren eta polizien zigorgabetasunarekin amaitzeko bidea irekitzen dute. Hala ere, gertu egon daiteke bake-akordioak sinatzeko garaia, eta horren aurrean Kolonbiako gizarteak eta nazioarteko gobernu eta erakundeek herritarren kontrako krimenen arduradunak epaitzeko eskatzen dute. Horren guztiaren eraginez krimen horietan nahastuta daudenak lege-ekimen asko aurkeztu dituzte, giza-eskubideen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren kontrako urraketa larriak berriz ere Zuzenbide Militar Penalaren bidez epaituak izan daitezela ("positibo faltsu" bezala ezagunak diren exekuzio estrajudizialak barne).

Human Rights Watch eta Amnesty International-en ustez, atzerapauso handia lirateke lege-ekimen hauek justiziarentzat eta zigorgabetasunaren aurkako borrokarentzat.

Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrak (CIDH)<sup>9</sup> berretsi du estatuaren ardura dela ikerketa judizialak hasi, garatu eta amaitzea exekuzio estrajudizialak argitu eta arduradunak zigortzeko, betiere ohiko jurisdikzio penalean, arreta egokiz eta neurritzko epeekin. Ikerketa horien helburuak ez luke bakarrik izan behar arduradun zuzenak identifikatzea. Ekintza horiek egitea erraztu edo bultzatu zuten egiturak argitzen lagundu beharko lukete ikerketa horiek.

### **Giza Eskubideen defendatzaileen egoera**

2014an, Somos Defensores programak Giza-Eskubideen defendatzaileen aurkako 626 eraso individual jaso ditu (% 65 gizonen aurka eta % 35 emakumeen aurka). Datu hauek % 71ko igoera dakarte aurreko urteko datuekiko eta % 160 inguruko igoera emakumeen aurkako erasoei dagokionez (85 2013an eta 221 2014an). Gainera, giza eskubideen aldeko 212 elkartetan jaso zuten erasoren bat, erakundeotako kideen bizitza eta osotasuna arriskuan jarri eta haien lana oztopatu zuena.

Erasorik ohikoena hauek izan dira: mehatxuak (% 78), hilketak (% 9), atentatuak (% 6), atxilotuta arbitrarioak (% 4), informazio lapurretak (% 2) eta sistema penalaren erabilera arbitrarioak (% 1).

Eraso-egileak honako hauek izan dira: batez ere talde paramilitarrak (% 73, 455 kasu); eta, baita ere, ezezagunak (% 19, 118 kasu), Indar Publikoak (% 7, 42 kasu), FARC (% 1, 7 kasu) eta ELN (% 0,5, 4 kasu).

Kazetariari dagokionez, Prentsa-Askatasunaren aldeko Fundazioak (FLIP) 164 biktime eragin zituzten 131 eraso zuzen jaso zituen. Mehatxuak dira erasorik ohikoena, 71 biktime eragin zituzten 60 kasurekin.

**Giza eskubideen defentsan aritzen ziren 55 pertsona erail dituzte** (49 gizon eta 6 emakume), gehienak indigenen eta nekazarien buruzagiak edo beren komunitateko liderrak. Hildakoen % 60k mehatxuak salatu zituen lehenago.

Hilketa gehien egon diren departamenduak izan dira: Cauca (10), Choco (5), Antioquia, Meta, Valle del Cauca eta Putumayo (4na).

---

<sup>9</sup> Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarra. Herrialdeko txostena, Kolonbia 2013. "Egia, Justizia eta Erreparazioa: Kolonbiako giza eskubideei buruzko laugarren txostena".

Hilketen ustezko egileei dagokienez, paramilitarren kopuruak behera egin du 2013ko datuekiko, eta ezezagunenak gora. Gerrilla-taldeek (FARCEk eta ELNek) erasoen portzentaje txikia baino egiten ez duten arren, giza-eskubideen urraketarik larrienak izan ohi dira haienak: 7 pertsonaren hilketa Cauca eta Choco-ko departamenduetan. Lehen kasuan FARCEk 3 pertsona hil zituen eta bigarreanean ELNk 4.

Amnesty Internationalen hitzetan, askotan hilketa hauek "saihets ziratekeen, estatuko agintariak salaketan aurrean behar bezala jokatu izan balute eta mehatxuak eta intimidazio-ekintzak ikertu izan balituzte"<sup>10</sup>.

#### Mehatxu masiboak eta zigorgabetasuna

2014 urtean inoizko igoerarik handiena erregistratu du Somos Defensores Programak mehatxuei dagokienez, 209tik 488 kasura pasatuz. Igoera honen arrazoi nagusia 2014ko irailetik abendura bitartean 15 mehatxu masibo bidali izana da. Mehatxuak gutunez eta emailez bidali zituzten eta haien helburu izan ziren hainbat sektoretako liderrak (emakumeen mugimendua, afroak, indigenak, sindikatuak, biktima-elkarteak, lekualdatutako pertsonak, giza-eskubideen abokatuak, La Habanako negoziazioetako biktimen ordezkariak, kazetariak, komunikatzaile alternatiboak, ezkerreko lider politikoak eta baita Biktimen Unitateko eta Lurrak itzultzeko Unitateko funtzionario publikoak ere).

Somos Defensores programaren arabera, igoera honen iturria zein den jakiteko dauden arazoak egon arren, ondoriozta liteke izan dutela eragina bake-elkarrizketek aurrera egitea eta prozesu horretan biktimek parte hartzea eta baita lurrak itzultzeko prozesuak eragin ditzakeen arriskuak ere.

ACNUDHek adierazi du kezkatuta daudela defendatzaileen aurkako erasoen ikerketak oso fruitu gutxi eman dituelako, bereziki mehatxuei dagokionez. "Askotan atentzio eta baliabide gehiago bideratzen dira aktibista batzuek gerrillarekin harremana duten ikertzera aktibista horiek erasoen biktima direneko kasuak ikertzera baino", esan dute<sup>11</sup>. Zentzu horretan, Todd Howlandek (ACNUDHek Kolonbian duen ordezkariak) adierazi du 2014 eta 2015 urteetan ez dela sententziarik egon giza-eskubideen defendatzaileek jasan dituzten hilketa eta mehatxuen ondorioz<sup>12</sup>.

Bestalde, CIDHeK bere kezka adierazi du giza eskubideen defendatzaileek eta kazetariak pairatzen dituzten etengabeko mehatxuengatik eta Kolonbiako Estatuari eskatu dio mehatxu horiek behar bezala ikertzeko, arretaz eta modu serio, zehatz eta inpartzialean, berriz ere horrelakorik gerta ez dadin. Era berean, gatazka armatuak iraun bitartean gertatu ziren giza-eskubideen urraketak salatuz defendatzaileek egin zuten lana goraiatu dute, eta baita Kolonbian bakea lortu eta indartzeko prozesuan egin dituzten ekarpen baliotsuak ere<sup>13</sup>.

#### "Arrano Beltzak"

2006 urtean, Arrano Beltzak delako taldea azaldu zen aurreneko aldiz desmobilizazioa eta gero. Azken 9 urteotan, estatua ez da gauza izan talde honek normalean erabiltzen duen helbide elektronikoaren jatorria identifikatzeko eta horrek Somos Defensores Programak "mehatxu ikusezin" deitzen duen egoera eragin du.

Fiskaltzak, Polizia Nazionalak eta Babeserako Unitate Nazionalaren (UNP) buru ohiak taldearen existentzia bera ukatu dute. Hala ere, 2014 urtean paramilitarrek bidalitako mehatxuetatik 291 talde honi egozten zaizkio, eta 507 azken 5 urteei erreparatzen badiegu.

<sup>10</sup> Nancy Tapias Torrado, Amerikako Giza Eskubideen defendatzaileen Egoeraren aztertzailea (Amnesty International).

<sup>11</sup> Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Urteroko Txostena. 17. or., 2015eko urtarrilaren 23a.

<sup>12</sup> El Heraldo egunkaria: "2014 eta 2015ean, sententzia bakar bat ere ez Giza Eskubideen defendatzaileen aurkako hilketa eta mehatxuen ondorioz": Todd Howland, 2015eko martxoaren 24a.

<sup>13</sup> <http://www.oas.org/es/cidh/prensa/comunicados/2015/007.asp>, 2015eko urtarrilaren 30a

## 2015:Hauteskunde-urtea

2015 hasieran egoera kezkarria zen berriro ere. Somos Defensores Programak 295 eraso erregistratu zituen giza eskubideen defendatzaileen aurka 2015eko urtariletik martxora (65 gizonen aurka eta % 35 emakumeen aurka). Igoera nabarmena izan zen erregistratutako kasuen kopuruan: mehatxuak (54tik 249ra), homizidioak (16tik 19ra) eta atentatuak (11tik 20ra).

Paramilitarrak ageri zaizkigu eraso-egile bezala 230 kasutan (% 78), ezezagunak 51tan (% 17), Indar Publikoak 13tan (% 5) eta gerrillak kasu batean (% 0,5).

Bereziki kezkarria da urteko lehen hilabeteetan hilketek izan duten igoera. Erregistratuko kasuen epea 2015eko apirilera arte luzatuz gero, giza eskubideen 27 defendatzaile hil dituztela salatu du NBERen koordinatzaile egoiliar eta humanitario den Fabrizio Hochschild-ek. Hilketak landa-eremuan gertatu dira gehien bat eta 2014an hildako pertsona guztien kopuruaren erdia suposatzen dute. Hochschildek adierazi du kezkatua dagoela igoera honek aurrera jarrai dezakeelako, datozen eskualdeetako hauteskundeak direla-eta geratuko den polarizazioarengatik. Beharrezkotzat jo du egoeraren berri ematea eta neurriak hartzea babesa bermatu eta hiltzaileen zigorgabetasuna saihesteko.

## **Gizarte zibilaren proposamenak eta protestaren kriminalizazioa**

Kolonbiak gizarte-mugimendu sendoa du, eta giza eskubideen aldeko erresistentzia-prozesu nabarmenak garatu ditu; prozesu horietan, gobernu nazionalai hainbat proposamen eta aukera aurkeztu dizkiete, justizia soziala aintzat hartuko duen bakea lortzeko.

2013 gizarteko borroken urtea izan zen, eta 1975etik hona borroka gehien geratu diren urtea da. 1990ko hamarkadan eta 2003ra arte protesta sozialak behera egin zuen, landa-eremuaren militarizazioaren, talde paramilitarren igoaldiaren eta legez kanpoko taldeen arteko gerraren ondorioz. Gaur egun, protesten kopurua gora egiten ari da.

Giza eskubideen aldeko elkarteak kezkatuta daude protestaren kriminalizazioa dela-eta. 2013ko ekainaren 11 eta irailaren 7 artea, hainbat sektoretako kideek Nekazarien Grebari hasiera eman zioten Catatumbon, eta jarraian etorri ziren Kolonbiako Meatzarien Greba eta Kolonbiako Nekazarien Greba Nazionala. Mobilizazioetan gizarte-mugimenduen estigmatizazioa, liderren kontrako eraso larriak eta Indar Publikoen gehiegizko erabilera (bereziki Istiluen aurkako Eskudroi Mugikorak (ESMAD) egindakoa) gertatu ziren, besteak beste.

Mobilizazio horien ondorioz, eta Gobernuaren eta gizarte-mugimenduen arteko akordioak ez betetzearen ondorioz eta gizarte-protesten aurkako errepresioa gauzatzeko indarra handitzeko asmoak publiko egin izanaren ondorioz, grebek 2014. urtera arte iraun dute, eta Nekazarien Herri Gailur Etniko Nazionala garatu da, zeinetan herrialde guztiko txokoetatik etorritako 30.000 pertsonak hartu baitzuten parte.

Nekazaritzaren erreforma da, oraindik ere, aldarrikapen nagusia. Eredu estraktibistak lurra pilatzen ditu eta ingurumen-inpaktu larria dauka eta horren aurrean beste eredu ekonomiko bat proposatzen dute, herrien iraupena eta bizitza duin bat edukitzeko eskubidea bermatuko duena, nekazarien, indigenen, afrikarren ondorengoen eta herri-sektoreen ekonomia indartuz.

Gainera, gizarte-protestaren kriminalizazioa eta judizializazioarekin amaituko dela ziurtatuko duten berme politikoak eskatzen dituzte, eta baita zuzenbide penal militarra bertan bera geratzea eta nekazaritza-produkzioari buruzko politiken definizioan parte-hartze oso eta eraginkorra egotea ere, komunitateek era autonomoan eraikitako proposamenak kontuan hartuz.

## GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO ELKARTEAK

### BAKE-ELKARRIZKETAK

Giza eskubideen elkarteek esaten digute haien itzaropena La Habanako bake-prozesuan jarria dutela. Zailtasunak izan diren arren, prozesuak aurrera jarraitzen du. Azpimarratzen dute 4 puntu ia guztiz definituta daudela eta aurten negoziatutako bake bat adostea espero dutela. Era berean, esaten duten badutela ELN bake-negoziatioekin bat egiteko esperantza, esploraziozko elkarrizketetan hiru urte eman eta gero bi aldeek mesfidantza izan dezaketen arren.

Hala eta guztiz ere, salatu egiten dute Kolonbian giza-eskubideak krisi egoeran daudela eta herrialdeak larrialdi humanitario bat bizi duela elkarrizketa hauek egiten ari diren bitartean. Era berean, prozesuak aurrera jarraitzeko oztopoak jartzen ari dira gerratik etekina lortu duten sektoreek. Sektore horiek lirakeke, batetik, gatazka biolentziaren bitartez pilaketa ekonomiko egiteko baliatu dutenak (bizirauteko oinarriko ondasunak eta lurrak pilatuz) eta bestetik, nagusitasun politikoa lortzeko terrorea baliatu dutenak. Testuinguru honetan, Armada orain arte izan duen zigorgabetasuna galtzearen beldur da. Adierazten digutenez, ez dago abian ikerketan penalik goi-karguen kontra, salaketak 6.000 baino gehiago izan diren arren.

Gainera, adierazten digute Zuzenbide penal militarren zabalpenak isiltasun-paktu bat bermatzea duela helburu, horrela Armadak bake-elkarrizketak onets ditzan. Indar Publikoari segurtasun juridikoa ematea da haien asmoa, egindako krimenak epaitzeko ardura justizia penal militarri egotziz, kondenak saihesteko asmoz. Testuak exekuzio estrajudizialak eta indarkeria sexualak salbuesten dituen arren (horiek ohiko justiziak epaituko lituzke), kezkatuta daudela nabarmendu dute, herrialdean delitu horiek tipifikatu gabe daudelako eta, ondorioz, xedapen horiek ez direlako betetzen.

Gainera, salatu egiten dute zabalpen honek arau berriak dakartzala Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren arloan, borrokan etsaitzat jotzen den pertsona oro kontuan ez hartzea ahalbidetzen duelako, *"itu legitimoa"* delako dotrina ezarriz. Honek ondorio larriak dauzka. Besteak beste, herritarrak babesik gabe geratzen dira eta *"gerrillen presiopean, edo haiek gidatuta, mehatxatuta edo infiltratuta"* egiten diren gizarte-protesten kontrako eraso militarrek egiten dira, manifestariak arrisku larrian ipiniz.

Era berean, jakinarazten digute Bakearentzako Lege-Marokoak talde armatuen arduradunentzako zigor murriztuak aurreikusten dituela. Murrizketa horiek, ordea, ez dira baldintza berdinetan ematen. Gerrillei askoz baldintza gehiago jartzen zaizkie: desmobilizazioa, armak entregatzea, ardura beren gain hartzea eta egia argitzen laguntzea. Gainera, goi-karguen arduraren irizpidea ez da aplikatzen Armadaren kasuan (ez da goi-kargurik, koronelik edo jeneralik, alegia, kondenatu) baina bai gerrillaren kasuan (FARCen buruzagitza guztia dago kondenatuta). Honen helburu argia, haien ustez, Armada babestea da. Zentzu horretan, salatzen dute Prokuradoretzak beti absolutzioa eskatzen duela, bere funtzioa gizartearen interes orokorraren alde egitea bada ere.

Uste dute egia ezagutzeko eskubidea dela gatazka berriz ez gertatzeko berme nagusietako bat, barne-etsaiaren dotrinaren eta segurtasun nazionalaren dotrinaren amaierarekin batera. Era berean, uste dute Kolonbiako gizartearen desmilitarizazioa bakearen aldeko urrats handia izango litzatekeela.

Nazioarteari eskatzen diote prozesua zaintzeko eta La Habanan adostutakoa betetzen dela bermatzeko jarraipen eta monitoretza-lanak egitea, batik bat eskualde-mailan eta arreta berezia eskainiz justizia lortzeko erraztasunari, Estatuaren krimen nagusiak argitzeari eta gatazka ondoko egoeran sor litekeen indarkeria-egoerari.
--

## **GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEEN EGOERA**

Giza eskubideen aldeko elkarrekin adierazten digutenez, mehatxu gehienak lurrak itzultzearen aldeko mugimenduko liderren kontra zuzentzen dira. Diotenez, gerrari esker etekina lortu duten sektoreek ez dituzte orain arte izan dituzten pribilegioak galdu nahi eta, ondorioz, mehatxatuta sentitzen dira prozesuak aurrera egiten badu indigenentzako, nekazarietarako eta afrikar jatorriko biztanleentzako bermeekin. Egoera hori dela-eta, pertsona askok ez dituzte beren lurrak eskatu gerta dakiekeenaren beldur.

Esaten digute 1448 Legea, Biktimei eta Lurrak Itzultzeari buruzkoa, ez dela gauza izan biztanleriaren eskaerak eta errekerimenduak asetzeko eta nabarmentzen dute lege horrek ez duela inolako aldaketarik eragin egiari, justiziari edo ordainei dagokienean. MOVICEk legea eraginkorrago izan dadin proposatu dituen aldaketa batzuk La Habanan eztabaidatzen ari dira.

Era berean, AEBekin, Europarekin eta beste herrialde batzuekin sinatutako Merkataritza askeko hitzarmenak (TLC) eta krisi ekonomikoak okerrera egiteak izan dituen ondorio negatiboak azpimarratu dituzte. Izan ere, Kolonbiako balantza komertzialak Latinoamerikako defizit handienetariko bat du.

Uste dute 2015 urte zaila izango dela, besteak beste eskualdeetako hauteskundeak daudelako. Paramilitarren kontrol handia eta ordezkari politiko gehiena hartzea aurreikusten dute. Eta herri-altxamenduen kontrako errepresioa salatzen dute, Herriaren Segurtasunerako Legearen babespean egindakoa.

### **"Arrano Beltzak"**

Giza eskubideen defendatzaile asko "Arrano Beltzak" taldearen eskutik mehatxuak jasotzen ari direla salatzen dute. Haien ustetan, Estatuaren segurtasun-aparatuen "*legez kanpoko beso ikusezina*" da talde hori. Hori argudiatzeko, izen hori erabiltzen duen destakamendu paramilitarrik ezagutzen ez dela diote. Mehatxu asko posta elektronikoko beretik bidali dituzte 4 edo 5 urtetan zehar, eta ezinezkotzat jotzen dute Fiskaltza helbide elektronikoko horren jatorria aurkitzeko gauza ez izatea. Kolonbia-Europa-AEB Koordinazioak uste du detektatu dutela indar militarren barnean duela jatorria. Esaten digute mehatxuak jasotzen ari direla eta informazioa lapurtzen ari zaizkiela, azken hori batik bat ikerketak publiko egitera doazenean.

Azkenik, erakundeek eraso-mota hauek ikertzeko duten aktibitate falta eta pasibotasuna salatu dituzte, eta baita mehatxuei sinesgarritasunik ematen ez dietela ere ("*mehatxu hauek zaharrak dira*", "*talde hori ez da existitzen honezkero*"...).

### **Babeserako Unitate Nazionala (UNP)**

Ustelkeria eta funts-desbideratze kasu asko izan dira UNPren baitan, eta horrek arazoak sortu dizkie administrazioarekin eta finantzaketarekin. Horrek eragina izan du babestuta egon behar luketen pertsonen segurtasunean eta etorkizunean babes-neurriak mantenduko direlako zalantzak hedatu ditu. 2014an, babes-neurri gogorak zituzten 5 lur-eskatzaile erail zituzten. Kazetarietarako dagokienez, babes-neurriak dituzten 114 pertsonetatik 80k ez dituzte behar bezalako neurriak jasotzen. Era berean, salatzen dute UNPko funtzionario asko Administrazioaren Segurtasun Sail zaharrean ibilitakoak direla.

Gainera, jakinarazten digute zuzendari berriarekin elkartzeko zain daudela eta UNPK taldeko babes-proposamen bat egin duela, Bermeen Mahai Nazionalak onartu beharko lukeena<sup>14</sup>.

---

<sup>14</sup> Bermeen Mahai Nazionala Bermeen Prozesu Nazionalaren baitan kokatzen da eta haren egitekoa giza eskubideen defendatzaileez eta gizarteko eta komunitateetako liderrez arduratzea da. 2009ko apirilean sortuz zen Estatuaren erakunde eta giza eskubideen aldeko erakundearen arteko akordioa eta gero, nazioarteak lagunduta. Bere helburua da aurrera egitea giza eskubideen egoeraren analisisian eta prebentziorako, babeserako eta ikerketarako konpromisoan. Honakoak osatzen dute: Giza Eskubideen aldeko plataformen eta sektore sozialen ordezkariak, gobernuko goi-karguak: (Barne Ministroa, Defentsa Ministroa, Gizarte-Babeserako Ministroa, aipatutako



## Adingabeak

Bereziki kezkarria da adingabeen egoera. Haietako asko BACRIMetan sartzen ari dira eta horrela biktima izatetik biktima-eragile izatera pasa dira. Egoera honek berbiktimizazioa dakar eta biktimak beren salaketa-prozesuetan geldiarazten ditu. Adingabeak narkotrafikorako ere erabiltzen dituzte eta pertsonen salerosketa sareetan esplotatzen dituzte. Salatzen dute egoera hau ikusezina dela eta Estatuak ez duela ezer egiten honen aurrean.

Nazioarteari eskatzen diote bakea eraikitzeko giza eskubideen defendatzaileek egiten duten lana modu publikoan babesteko eta gizarte zibileko erakundeekin duten lankidetzarekin aurrera jarraitzeko.

---

ministerioetako eta Kanpo-Harremanen ministerioko giza eskubideen zuzendariak, Giza Eskubideentzako eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioarentzako Presidentearen Programako Zuzendaria, Polizia Nazionalaren Zuzendari Nagusia) eta Estatuko goi-mailako ordezkariak: (Prokuradore Nagusia, Fiskal Nagusia, Arartekoa). Gainera, honakoek laguntzen dute: ACNUDHek, Garapenerako Nazio Batuen Programak, Espainiako eta Suediako enbaxadek eta nazioarteko Giza Eskubideen aldeko plataformek.

## EGOERA ESPEZIFIKOAK: Aldi Batez Babesteko Eusko Jaurlaritzaren programan hartutako pertsonen erakundeak

### Herrien Biltzarra

#### BAKE-ELKARRIZKETAK

Herrien Biltzarreko kideek esaten digute oso kezkatuta daudela bake-elkarrizketak egiten ari diren honetan paramilitarrek Kolonbiako gizarte- eta herri-mugimenduaren kontra darabilten biolentziaren igoerarengatik eta horren salaketa egiten dute. Adierazten dutenez, akordiorik lortzen bada gizarte-mugimenduen kontrako egoera larriago bilakatuko da eta, bestela, mugimenduotan parte hartu dutenek kriminalizazioa eta jazarpena pairatuko dute. Hori dela-eta, arreta handiz ibili behar da orain nazioartea. Are gehiago UNP, bake-elkarrizketen argudioarekin, babes-neurriak txikitzen ari den honetan. Egoera hori izanik, gizarte-mugimenduen beharrei egokitzen zaizkien taldeko babes-neurriak eskatzen dituzte.

Segurtasun nazionalaren dotrina bertan behera uzteko exijitzen dute, eta baita giza eskubideen alde jardun ahal izateko berme politikoak ematea. Salatu egiten dute gerra egun ez dela testuinguru militar batean egiten. Orain, gerra juridiko eta politiko batean murgilduta daude eta defendatzaileak daude ikusmiran, giza eskubideen, egiaren, justiziaren eta ordainaren alde egiten duten lanarengatik, eta baita egoera berriz ez gertatzeko eskatzen dituzten bermeengatik eta bakearen alde egiten duten apustuarengatik ere. Horrela, barneko etsaiaren logikari eusten diote. Logika honek, militarrez gain, beste erakunde batzuk ere kutsatu ditu. Esaten diguten desegindako Segurtasun Sailak egin zituen datu-baseak oraindik ere erabiltzen direla giza eskubideen defendatzaileei mehatxu egiteko eta, bake-prozesuan egon arren, "*gerrarako legeak egiten*" direla. (Zuzenbide Penal Militarren zabalpena eta gizarte- eta herri-mugimendua kriminalizatzen duen Herriarren Segurtasunerako Legearen eragina). Haien ustez, akordioaren ondorengo garaietarako estrategia da hori.

Uste dute beharrezkoa dela gatazkaren egiturazko kausak ikusaraztea eta konpontzea eta baita enpresa transnazionalen eta industria estraktiboen eragina ikertzea ere.

#### Giza Eskubideen defendatzaileen egoera

Esku-orri eta posta elektronikoko bidez "Arrano Beltzak" taldeak egindako mehatxu kolektiboak salatzen dituzte, eta baita egitura paramilitarrak mantendu izana eta 2014ko urtarrilean Bogotan gertatu zen Carlos Alberto Pedraza Salcedoren bahiketa eta hilketa ere. Pedraza Salcedo hainbat mugimendu eta plataformaren kide zen: Nunca Mas proiektua, MOVICE, Kolonbia Erdialde eta Ekialdeko Masen Mugimendu Politiko, Sozial eta Popularraren Eskualdeko Koordinazioa eta Herrien eta Nekazarien Nazio-Biltzar Etnikoa.

Urtarrilaren 19an, Rafael Uribe udalerriko (Bogotá) Molinos II auzoan dagoen bere etxetik Teusaquillora joan zen bilera batera. Bere familiari komunikatu zion zer jarduera egin behar zituen eta gauean itzuliko zela. Ordutik inork ez daki non dagoen. Urtarrilaren 21ean, Polizia Judizialeko kide batzuek bere gorpua aurkitu zuten San Bartolome bideko sektore batean. Las Marraneras du izena lekuak eta ez da inor bizi bertan. Gorpuak indarkeria-zantzuak zituen. Gachancipa-Cundinamarçako polizia judizialeko kideek hainbat dei egin zizkieten Pedraza Salcedoren ingurukoei, aurkikuntzari buruzko informazio kontrajarriak emanez.

Medikuntza Legaleko Institutuak egiaztatu du heriotza biolentzia izan zela.

Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrak (CIDH) hilketa hau gaitzetsi du eta esan du Estatuaren betebeharra dela ofizioz ikerketa bat martxan jartzea gertaera argitzeko, errudunak identifikatu eta zigortuz<sup>15</sup>.

Herrien Biltzarrak esan du Pedraza Salcedok ez zuela inolako harremanik (pertsonek, lanekoak, soziala edo politikoa) hiriburutik 60 kilometrora dagoen Gachancipa herrian. Gainera, ez zeraman dirurik edo baliozko objekturik. Telefono mugikor arrunt baina ez zeraman soinean, eta ez zuten aurkitu gorpuarekin batera. Fiskaltzak mugikor horren bitartez informazio bilatzeko eskatu du. Herrien Biltzarra SIJINEk (Polizia Nazionalaren Ikerketa-taldea) informazio hori manipula dezakeen beldur da.

Uste dute hilketa hau zehatz-mehatz kalkulatuak ekintza bat dela eta biolentzia komunaren itxurak emanez herri-mugimenduen kontra egindako erasoaren parte dela, tartean herrialdeko garrantzitsuenetakoa den Herrien eta Nekazarien Nazio-Biltzar Etnikoa. Mehatxuak egiten ari dira mugimenduen bozeramaileen aurka eta, salatzen dutenez, ekintza hauek gorakada izan dute azken hilabeteotan. 10 ekintza biolento zenbatu dituzte 2014ko urriaren 23tik 2015eko urtarrilaren 22ra bitartean.

Ekintza honek mehatxuak oinarritzko militante guztiengana zabaltzea dakar eta uste dute zaila dela UNPK profil hori duten guztiak babestea. Pedraza Salcedok ez zuen mehatxurik jaso eta, ondorioz, ez zuen babes neurririk. Salatzen dute burokratiko oso zaila dela bera giza eskubideen defendatzailea zela frogatzea. Hori ezinbestekoa da bere hilketak motibazio politikoa izan zuela frogatzeko, eta ez zela biolentzia komuneko gertakari isolatu bat izan. Kezka eta eskari hauek guztiak Kolonbiako erakundeei eta Nazio Batuei helarazi dizkiete.

Esaten digute gaur egun gobernuarekin dituzten elkarrizketak gizartearen mobilizazioaren ondorio direla. 2014ko maiatzaren 8an, *870 Dekretua argitaratu zen, zeinaren bidez Mahai Nazional Bakarra izeneko elkarrizketa- eta parte-hartze espazio bat arautzen den Herrien eta Nekazarien Nazio-Biltzar Etnikoaren eta gobernuaren artean.*

Honako eskari hauek egiten dituzte:

- Carlos Alberto Pedraza Salcedoren desagerpena eta hilketaren arduradun intelektual eta materialen ikertzea eta epaitzea eta berriz horrelakorik gertatuko ez dela bermatzea.
- Kasua Fiskaltzaren Giza Eskubideen Unitateak eta Ikerketa-Talde Teknikoak (CTI) ikertzea. Salatzen dute SIJIN bere familiari eta, batik bat, bere anaiari jazartzen ari zaiola eta babes-neurriak eskatzen dituzte berarentzat.
- Berme kolektiboak eta oinarritzko militantearen profilari egokitzen zaizkion babes-eskemak ezartzea eta bake-prozesuaren argumentuarekin babes-neurriak txikitzeari uztea.
- Gobernuak agerraldi publikoa egitea giza eskubideen defendatzaileen lana goraipatu eta babesteko, gizarte- eta herri-mugimenduen lana berme politiko hornitzeko urrats gisa.
- Seguratasun nazionalaren dotrina bertan behera uztea.
- 2015eko hauteskundeetarako bermeak ematea.

<sup>15</sup> <http://www.oas.org/es/cidh/prensa/comunicados/2015/007.asp>, 2015eko urtarrilaren 30a

## **Gizarte-garapen Integralerako Elkartea (ECATE)**

### **BAKE-ELKARRIZKETAK**

ECATEn kezkatuta daudela adierazi digute, bake-prozesuan zehar biolentziak izan duen gorakada dela-eta. Operazio militarrek egiten jarraitzen ari dira eta horrek eragin larriak dauzka biztanleentzat, eta gainera giza eskubideen defendatzaileen aurkako mehatxu, seinalatze eta jazarpenak ez dute etenik. Oinarriko militanteak arriskuan daudela dioskute, eta baita UNP babes-neurriak desegiten ari dela.

Uste dute beharrezkoa dela berme gehiago eskaintzea gizarte-mugimendu eta elkarten lanak aurrera jarrai dezan eta Gobernuak eta erakundeek darabilten hizkeraren kontra agertu dira: gatazka ondoa, desarma, desmobilizazioa eta berrintegrazioa. Logika militarra nagusi dela salatzen dute, eta baita horrek herrialdean ezinbestekoak diren giza-garapeneko egoerak agendatik kanpo uzten dituela ere.

Onartzen dute hainbat baliabide martxan jarri direla gizarte zibilak elkarrizketetan parte har dezan, aurreko prozesuetan ez bezala. Hala ere, adierazten dute horrek ez duela parte hartzen ari diren pertsonak agerian uzten dituen espazio bihurtu behar, parte-hartzaileak arriskuan ipin litzakeelako. Haien ustez, akordioak lortzen badira, herrialdean biolentzia gehiago izango da, baina akordiorik lortzen ez bada egoera are okerragoa izango da, prozesuan era aktiboan parte hartu duten pertsonak "*helburu militar*" bilakatuko baitira. Eta Estatuari exijitzen diote pertsona hauek behar dituzte babes-beharrak ematea.

Azkenik, salatzen dute gatazka egoeran dauden udalerrien mapa eta multinazionalen presentzia duten udalerrien mapa guztiz bat datozela.

### **GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEEN EGOERA**

ECATEren lana da giza eskubideen alde egitea eta sarritan meatze- eta energia-baliabideen eraginpean dauden nekazarien, afrikarren ondorengo eta indigenen komunitateei laguntzea. Lan hori dela-eta seinalatu egiten dituzte eta mehatxu sistematikoak jasotzen dituzte eta horregatik kezkatuta daudela adierazi digute.

Cauca bailaran jarduten diren gizarte-erakunde eta mugimenduak "alerta" egoeran daudela diote eta sufritzen ari diren erasoak saltzen dituzte, maiz ohiko delinkuentziaren itxurapean egindakoak.

Uste dute ez Kolonbiako gobernuak ez Valle del Cauca departamenduko gobernuak ez dutela elkarrizketarako borondaterik eta azken hori 2015eko urtarrilean egin zen azken elkarrizketa-deialdira agertu ez zela salatzen dute.

Azkenik, nabarmentzen dute urteak direla Kolonbiako gobernuak Segurtasun Saileko (DAS) datu-baseak depuratzeko konpromisoa hartu zuela. Alabaina, Fiskaltzak prozesuan abian jartzen ditu gizarteko liderren aurka eta datu-base hauek erabiltzen ditu, non pertsona hauetako asko "*arriskutsu*" edo "*subertsibo*" bezala sailkatuta baitaude oraindano.

Honako eskariak egiten dituzte:

- Giza eskubideen defendatzaileen lana era publikoan onartzea. Uste dute aginduak eskualde guztietako funtzionarioei helarazten ez bazaizkie ez dela legitimazio publiko hori lortzen.
- Zigorgabetasunarekin amaitzeko, ikerketak sustatzea. Kexak, Fiskaltzari edo Prokuradoretzari zuzendutako salaketak (Nazio Batuei eta nazioarteari ere bidaltzen zaizkionak) egin arren, ikerketek ez dute inoiz aurrera egiten. ECATEk bere kideen kontra egindako mehatxuen eta jarraipenengatik egindako salaketen kasuan,

zigorgabetasuna % 100ekoa da.

- UNPri eskatu zaizkion babes-neurriak martxan jartzea ECATEren kideentzat eta ECATEk lagundutako komunitateetako liderrentzat. Neurri horiek nekazarien, afrikarren ondorengoen eta indigenen komunitateekin adostu beharrekoak dira.
- Estatuak konpromisoa hartzea 1448 Legea erabili dutenak, lur-eskatzaileak eta biktimen foroetan parte hartu duten pertsonak babesteko, bake prozesuaren baitan.
- Segurtasun Saileko (DAS) datu-baseen depurazioari buruzko informazioa ematea nazioarteari aldian-aldian.

## ERAKUNDE PUBLIKOAK

Euskal Ordezkaritzak Kolonbiako erakundeei helarazi dio giza eskubideen defendatzaileen aurkako mehatxu eta jazarpenen igoerarengatik duen kezka, eta baita 2015ean hauteskundeak direla-eta egon litekeen okertzearengatik ere.

Era berean, adierazi diete arduratuta daudela defendatzaileen kontra martxan jartzen diren prozesuetan Segurtasun Sailaren (DAS) datu-baseak erabiltzen direlako.

### KOLONBIAKO FISKALTZA NAGUSIA

2014ean Euskadin jaso genituen giza eskubideen defendatzaileen inguruko eskaera zehatz batzuk helarazi dira:

#### Herrien Biltzarra:

Carlos Alberto Pedraza Salcedoren desagertpen eta hilketaren ikerketa Fiskaltzaren Giza Eskubideen Unitatearen eta CTIren esku uztea eskatu da.

#### ECATE:

Luz Marina Palacios Bocanegrak (2014an Giza eskubideen defendatzaileak aldi batez babesteko euskal programan parte-hartzailea) bere biziaren kontrako mehatxuarengatik eta jazarpenarengatik jarri zuen salaketaren ikerketaren egoerari buruzko informazioa eskatu da.

Era berean, 2013an herrialdera egindako aurreko bisitan egindako eskarien jarraipena egin da:

#### Justiziaren eta Bakearen Aldeko Eliz Arteko Batzordea:

Curvarado-Jiguamiando-ko kasuetan eskualdeko Fiskaltzaren jarrerarengatik eskerrak eman dira eta informazioa eskatzen da honakoei buruz: Gilberto Daza hautetsiaren hilketa (Sucre, Cauca), Wilder Eduardo Olave-ren exekuzio estrajudiziala (Inza, Cauca) eta Argelian (Cauca) desagertutako lau nekazarien gorpuen berreskuratzea.

Batzordeko kideen kontrako mehatxuei dagokienez, eskerrak eman zaizkio Guadalajara de Buga-ko (Valle del Cauca) Fiskaltzari Euskadiko eta Espainiako hainbat elkartetek bidalitako idatziarengatik. Bertan 2013an Santiago Merak (2013ean Giza eskubideen defendatzaileak aldi batez babesteko euskal programan parte-hartzailea) sufritutako muntai-saiakera salatzen zen. era berean, muntai horren ikerketaren nondik norakoei buruzko informazioa eskatu da.

Azkenik, Batzordeko kideen kasuak bateratzea eskatu da, bai salaketa haiek jarri duteneko kasuak nola salaketa haien kontra jarri deneko kasuak ere.

#### Hondurasko Indigenen Babeslekua (Morales, Cauca):

Robert de Jesus Guacheta, Hondurasko babeslekuko gobernadore-ordearen hilketari (Tierradentro, Cauca) ikerketaren egoerari buruzko informazioa eskatu da.

Fiskaltzak kasu horiei buruzko informazioa bidaltzeko konpromisoa hartu du. Txostena egiterako datan, ez dugu jaso informaziorik kasuen inguruan.

Delituen Biktimen Arreta Penal Osorako Zentroaren (CAPIV) funtzionamenduari buruzko informazioa eman digute. Zentro horren helburua da biktimei justizia lortzea erraztea. 5 ataletan banatzen da:

- Delitu orokorrak
- Justizia trantsizionala (1448 eta 975 Legeak)
- Erakunde arteko artikulazioa (Estatua eta nazioarteko ordena)
- Aurrekariak eta ohar judizialak
- Erabiltzaileentzako arreta

Giza eskubideen defendatzaileen kasuan, sailkapen hau erabiltzen da:

- Sindikalistak
- Batasun Patriotikoa
- Giza Eskubideen defendatzaileak
- Kazetariak

Esaten digute Giza Eskubideen Unitateak Fiskal Orokorraren aginduz esku hartzen duela eta giza eskubideen aldeko erakundeek jarritako salaketa gehienak Fiskaltza sekzioaletan daudela.

Azkenik, 2012ko urriaren 4ko 01 Zuzentarauak ezartzen dituen lehentasunezko irizpideak helarazten dizkigute. Honako helburuak ditu: Herritarren segurtasuna (kasuak elkartu, elementu komunak erabiliz, antolatutako krimenaren kontra egiteko), Gatazka armatuaren testuingurua ezagutzea (justizia trantsizionala abian jartzeko delituaren eszenatokiak dimentsio guztietan berreraikitzea), justizia-erakundeen legitimotasuna eta azkartasuna (Fiskaltzaren baliabideak arrazionalizatzea herritarrei justizia era eraginkor eta gardenean administratzeko, zigorgabetasuna gutxitzeko), gizarte zibilaren eskariei jaramon egitea (gizarte zibilak planteatu du beharrezkoa dela kriminalitatea testuinguruan aztertzea giza eskubideak larriki urratzen dituzten taldeak eta defendatzaileen kontra aritzen diren taldeak modu eraginkorrago batean desegin ahal izateko).

## KOLONBIAKO PROKURADORETZA NAGUSIA

Euskal Ordezkaritzak desagertutako Segurtasun Sailaren (DAS) datu-baseetatik giza eskubideen defendatzaileak kentzeko eskaeraren emaitzari buruzko informazioa eskatu du. Giza eskubideen aldeko elkarteek salatzen dute datu horiek sarritan erabili dituztela haien kontrako auzietan.

Gainera, exekuzio estrajudizialen inguruko Nazio Batuen Errelatore Bereziaren bisitatik bi urte pasa direnean, delitu horiengatik auzirik ireki den galdetu da eta emandako urratsei buruzko informazioa eskatu da.

Kolonbiako Prokuradoretzak esan digu bere funtzioa dela Kolonbiako Konstituzioa, auzitegien erabakiak eta administrazioaren ekintzak, betetzen direla bermatzea; giza eskubideak sustatu eta babestea; eta funtzio publikoen jardunaren jarraipena egitea; prebentziozko neurrien, esku-hartze judizialen eta administratiboaren eta diziiplina-prozesuen bitartez.

### **Giza Eskubideen defendatzaileen egoera**

248/2014 ebazpenak esku hartzeko beharra ezartzen du (ordura arte borondatezkoa zen) eta Prokuradoretzari Ahalmen berezia ematen dio, eta baita esku-hartze penalerako irizpideak ere, biktima giza eskubideen defendatzailea denean<sup>16</sup>. Prokuradoretzak kasua ebaluatzeko txostenak egiten ditu. Helburua da Fiskaltzarentzat errazagoa izatea aurrerapausoak egitea. 2014ko irailera arte bi sententzia baino ez dira eman, abian 380 ikerketa egon arren.

Haien ustez, oso garrantzitsua da prebentzioari zigorrari baino garrantzi gehiago ematea. Horretarako, ordenamendu juridikoa edo pertsona hauen giza-eskubideak erasotzen dituztenean horiek babesteko indarrean dauden politika publikoen jarraipena egiten dute.

Lurrak itzultzeko mugimenduaren liderren kontrako mehatxu serioak daudela aitortzen digute, eta Prokuradore Nagusiaren kezka eta ardurua helarazten digute giza eskubideen defendatzaileek bizi duten estigmatizazio egoeraren aurrean eta auziek ez dutelako aurrera egiten. Testuinguru horretan, Indar Publikoei eskatu die ez estigmatizatzeko, Fiskaltzari ikerketetan aurrera egiteko eta Prokuradoretzako funtzionarioei gai hauetan duten parte hartzea handitzeko. Prokuradorearen lana da gomendioak ematea eta diziiplina-espeditentak abiaraztea aginduak betetzen ez direnean. Horrela, 2010eko 012 ebazpenak irizpideak ezartzen ditu giza eskubideen defendatzaileek beren lana egiteko duten eskubidea bermatzeko.

Zigorgabetasunaren aurkako proiektuari buruzko informazioa eman digute. Proiektu honen helburua da Giza Eskubideen edo DIHren urraketak gertatu direneko kasuak argitzea zailtzen duten oztopoak gainditzea, errudunak zigortzea eta biktimei ordainak ematea<sup>17</sup>.

<sup>16</sup> 33. artikulua. 248/2014 Ebazpena. "Ministerio Publikoak honako irizpide hauei jarraituz lehenetsiko ditu interbentzioak: [...] e. Bizitzaren edo segurtasunaren kontrako delituetan, biktima funtzionarioa, kazetaria, bake-epaile, giza eskubideen defendatzaile edo elkarte sindikal, politiko edo erlijiosoko kide denean edo izan denean eta eraso horregatik gertatzen denean".

<sup>17</sup> Proiektu horretan, Prokuradoretzaz gain, honakoek ere hartzen dute parte: Presidenteordetzaren Giza Eskubideen eta DIHren Presidentearen Programak, Kolonbiako Fiskaltza Nagusiak, Epaileren Batzorde Gorenak, Arartekoak, Gobernuaren Plangintza-Departamenduak, Barne Ministerioak, Justizia Ministerioak eta Kartzelen Institutuak. Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Kolonbiako Bulegoak laguntza eman dio proiektuari.



2011ko 4912 Dekretuak<sup>18</sup> ezarri zuen giza eskubideen defendatzaileen arrisku-egoera analizatzeko eta neurriak ezartzeko sistemaren berri ere eman digute. Honetan datza: Informazioa bildu eta analizatzeko talde teknikoak (CTRAI)<sup>19</sup> informazioa biltzen du, Hasierako Baloraziorako Taldeak (GVP)<sup>20</sup> datuak analizatzen ditu eta Arriskuak ebaluatu eta Neurriak Proposatzeko Batzordeak (CERREM) neurriak baloratu eta onartzen ditu, ondoren UNPk martxan jarri beharko dituenak.

GPVn parte hartzen dute UNPk, Defentsa Ministerioak, Polizia Nazionalak, Giza Eskubideak eta DIH babestu eta gordetzeko presidentearen programak eta Biktimei Arreta emateko Unitateak. Ohiz kanpoko gonbidatu bezala parte har dezakete Fiskaltzak, Prokuradoretzak, Arartekoak eta Alerta Goiztiarren Sektore arteko Batzordeak.

Bestalde, CERREM-en hartzen dute parte, boto-eskubidearekin, Barne Ministerioak, Polizia Nazionalak, Biktimei Arreta emateko Unitateak eta Errepublikako Presidentearen Giza Eskubideen Sailak. Botorik gabe parte hartzen dute Fiskaltzak, Prokuradoretzak, Arartekoak, ACNUDHek eta ACNURek (azken honek lekualdatutako pertsonen kasuan bakarrik). Talde horrek babes-neurriak proposatzen dizkio UNPren zuzendariari.

Prokuradoretzaren egitekoa da prozesua guztian zehar gomendioak ematea.

Onartzen dute dekretuak banakako babesari bakarrik dagozkiola eta babes kolektiboa konplexua dela, baina badela horren inguruko dekretu baten zirriborro bat.

#### Exekuzio estrajudizialak

Prokuradoreak ezer egitea zaila dela esaten digute, tipifikatu gabeko delituak direlako. 2010ean ebazpen bat eman zuten, "positibo faltsuak" babestutako pertsonen kontrako homizidiotzat eta DIHren urraketa larritzat hartzeko. 3.000 kasu baino gehiago daude eta horrek konplexutasun handia suposatzen du, baina zigorgabetasuna % 90-95en bueltan dago.

#### Desagertutako Segurtasun Sailaren (DAS) datu baseen depurazioa

Jakinarazten digute 2011ko 4057 ebazpenak DAS desagiteko agindua ematen duela eta hiru prozesuren ikuskapena ezartzen duela: DASen artxiboen zaintza, kontsulta eta depurazioa, hain zuzen ere.

2013an Kolonbiako Inteligentzia Zuzendaritza sortu zen (DNI). Erakunde honek DASEk ez bezalako egitekoak ditu, eta azken horren eskumenak beste erakunde batzuetara pasatu dira (Esate baterako, UNP sortu da). Inteligentzia ekintzak egiteari uzten zaio eta inolako beste organismoak ez ditu bere gain hartzen.

DASEn behin betiko desagitea 2013ko uztailan egiten da. 1303 Dekretuarekin amaitzen da desagite prozesua. Inteligentzia-artxiboen zaintza eta kontserbazioa Kolonbiako Artxibo Orokorren eskuetara pasatzen da. Artxiboa DASEtik egoitza berrira eraman zutenean, Poliziak, Armadak UNPk eta Prokuradoretzak zaindu zuten.

Orain segurtasun-indarrek baino ez dezakete kontsultatu eta Inteligentzia Zuzendaritzaren (DNI) esku dago.

---

<sup>18</sup> Izapideak UNPren Zerbitzu-Kudeaketako bulego batean eskakizun fisikoa edo elektronikoa ematerakoan hasten dira. Konpetentziak berrikusten dira eta kasu bakoitza analizatzen da. Biztanleria eta biktimizazioa eragiten duten ekintzak babesa beharrezko egiten badute, Babes-Bidea aktibatzen da.

<sup>19</sup> Onartutako eskakizunak CTRAIri bideratzen zaizkio. Beraiek egiten dute landa-lana eskumena duten erakundeekin informazioa kontrastatzeko eta arriskua neurtzeko matriza martxan jartzen dute. Honek hiru aldagai dauzka: Mehatxua, Arriskua eta Zaurgarritasuna. Arriskua izan liteke: muturrekoa, larria edo ohikoa.

<sup>20</sup> GVPk arrisku-egoera analizatzen du CTRAIk emandako informazioaz baliatuz eta CERREMi arrisku-mailari buruzko zehaztapena bidaltzen dio eta martxan jarri beharreko neurriak egokienak proposatzen dizkio. Prozesua 30 lan-eguneko epean egingo da gehienez ere.

Inteligentzia-Legeak ebatzen du Batzorde laguntzaile bat eratu behar dela Kolonbiako inteligentzia-artxiboak depuratzeko. Batzordearen presidentea Prokuradore Nagusia da eta 6 hilabete daramate lanean honezkero. Haren helburua Gobernuari gomendioak egitea da. Onartzen dute egiteko zaila dela eta horregatik kanpoko adituen laguntza eskatu dute. Bi urte daukate txostena egiteko, baina bitartean txosten partzialak aurkezteko aukera dute.

Prokuradoretzak jarraipen-lana egingo du, egindako gomendioak betetzen diren edo ez jakiteko.

Batzordean badago gizarte zibilaren ordezkari bat, Bermeen Mahai Nazionalak hautatutakoa. Gainera, hainbat erakundetako ordezkariak ere badaude: Memoria Historikoaren Zentro Nazionalekoa, Inteligentziako, Akademiakoa...

## **Babeserako Unitate Nazionala (UNP)**

Euskal Ordezkaritzak kezka adierazi du, mehatxuek gora egin arren. giza eskubideen defendatzaileei babes-neurriak gutxitu dizkietelako.

UNPk konpromisoa agertu du Unitatea administrazioari eta aurrekontuei dagokionean indartu eta egonkortzeko, bere misioa behar bezala bete ahal izan dezan. 2011ko araudia betetzen dutela esan digute<sup>21</sup>, baita indigenen komunitateetan neurri bereizgarriak jarri dituztela ere: kanoak, motorrak, guardia indigenaren indartzea eta etengabeko elkarriketa indigenen eta giza eskubideen aldeko erakundeekin.

Onartzen dute 2011ko 4912 dekretuak ezartzen duen arriskuen analisirako sistema pixka bat zurruna izan daitekeela, baina hori erabiltzea babestu dute, berme guztiak ematen dituen sistema delako. Gainera, berehalako arriskuei aurre egiteko urgentziatzko eskaria egiteko aukera badagoela jakinarazten digute.

Carlos Alberto Pedraza Salcedoren desagerpen eta hilketari dagokionez, kasua oraindik ikerketa-fasean dagoela esaten digute, eta hortaz motibazio politikoak oraindik zehaztu gabe daudela. Hala ere, aitortzen dute hori pentsatzeko zantzu argiak daudela eta bere anaia jasotako mehatxuen aurrean babesteko neurriei buruzko informazioa eman digute.

Herrien Biltzarrak eskatutako babes-neurri kolektiboen harira, esan digute ezin dezaketela arrisku globaleko ikerketarik egin (adibidez, instalazioetan), pertsonalitate juridikorik gabeko mugimendu sozial eta politiko batez ari baikara. Hala ere, mugimenduaren liderrei babes-neurri indibidualak eman dakizkiekeela esaten digute, eta horrek haien bulegoen segurtasunean eragin positiboa izango lukeela.

ECATEren kideentzako eta haiek laguntzen dituzten komunitateentzako babes-neurrien eskaerari buruz, balorazioa egiteko konpromisoa hartu dute.

---

<sup>21</sup> 2011ko 4912 Dekretua eta 2012ko 1225 Dekretua. Beste araudi batzuekin batera, adibidez 2011ko 4065 dekretua (UNPren sorrera), 2011ko 4100 dekretua (Giza Eskubideen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren Sistema Nazionalaren sorrera), 2012ko 1628 dekretua (irakasleentzako babesa) eta 2012ko 0805 ebazpena (emakumeak babesteko protokoloa, arriskuan dauden pertsonak babesteko aparatua sortu dute, gobernuaren, arlo juridikoaren eta aurrekontuen aldetik, paperaren gainean gutxienez, goranzko eskariaren eta herritar hauetako askoren aurkako neurritz kanpo biolentzia dela-eta).

## NAZIOARTEKO ERAKUNDEAK

### Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioa (ACNUDH)

#### Giza Eskubideen defendatzaileen egoera

ACNUDHek esan digu giza eskubideen defendatzaileen egoera lehentasuna dela beraien bulegoarentzat.

Elementu positibo bezala, gobernuaren eta erakunde eta mugimendu sozialen arteko elkarrizketak hasi izana aipatu dute.

Hala eta guztiz ere, bake-elkarrizketei dagokienez, alde guztiak beren interesak babesten saiatzen ari dira, eta testuinguru horretan giza eskubideen defenditzaileek mehatxuak jasotzen dituzte.

Ondorioz, elkarrizketarako espazio gehiago eta gutxiago daude aldi berean.

Kezka adierazi digute alor honetan dagoen zigorgabetasunarengatik eta hori 2015erako erronka handia izango dela uste dute.

Nazio Batuek lan egiten dute babes-unitate guztien prestakuntza eta koordinazioa sustatzeko eta urteroko txostenak egiten dituzte hartutako neurrien jarraipena eginez. Normalean, UNPk beraien gomendioak betetzen ditu, baina arazo bat da jarraipen-lan hau ACNUDHek egitea Estatuaren erakundeek egin beharrean.

Giza eskubideen defendatzaileei buruz ACNUDHek bere buruari ezartzen dizkion helburuak honako hauek dira:

- Giza eskubideen defendatzaileen sufritzen dituzten mehatxu ea jazarpen harira egiten diren judizializazio eta ikerketetan aldaketa positiboa sustatzea: kondena gehiago.
- Gobernuaren eta giza eskubideen aldeko elkarrizketa-egituren hobekuntza sustatzea. Beharrezkotzat jotzen dute giza eskubideen defendatzaile guztiekin elkarrizketak egotea eta jarraipen-plan bateratu bat egitea, babes, Fiskaltzaren eginkizunak eta tartean dauden beste erakunde guztien lana hobetze aldera.

Azkenik, jakinarazi digute ACNURekin elkarlanean ari direla indigenen liderrei prestakuntza emateko programa batean.

## KONKLUSIOAK

*Kolonbiako Giza Eskubideen Egoera Behatzeko eta Jarraitzeko Euskadiko III. Ordezkaritzak uste du herrialdeak arautegi zabala duela bake justu eta iraunkorra eraikitzen jarraitzeko.*

### Balioespenak

Giza eskubideen aldeko erakundeek eta Kolonbiako Gobernuak esandakoaren bidetik, balioespen ona eta itxaropentsua egiten du Kolonbiako Gobernuaren eta FARC-EPren arteko elkarrizketa irekiaren prozesuagatik, baita espero du ELN prozesu horri atxikitzea ere.

Kontziente da herrialdeak lan zaila duela aurrean, neurri batean gatazkak eragin duen eta eragiten duen biktima-kopurua handia delako. Hala ere, prozesuari buruz aipatutako gabezia guztiez gain, norabide horretan aurrera jarraitzera animatzen du, kontuan hartuz genero desberdintasunak eta komunitateen etnia- eta kultura-ezaugarriak. Prozesu horretan biktimen interesak lehentasuna izan beharko du —bereziki komunitate indigenen, afrikarren ondorengoen eta nekazarien kasuan, haien bizimodua lurrari lotua doalako—, eta prozesu horiek segurtasun-neurriekin egitea bermatu beharko da.

### Kezkak

Edonola ere, bere egiten ditu giza eskubideen aldeko erakundeek helarazitako **zenbait kezka orokor**; kezka horiek, gainera, aitortuta dituzte Kolonbiako zenbait erakunde publikoko. Bakerako bidean bi oztopo nagusi daudela uste du:

- Giza eskubideen defendatzaileen kontrako etengabeko mehatxu eta jazarpenen igoera, zeinak inolako segurtasun-bermerik gabe egiten duten lan.

Bake-elkarrizketekin batera, liskarren igoera kezkgarria gertatu da, lurren itzulpenaren liderrei eragiten diena batik bat, eta gainera babes-neurriak gutxitu egin dira.

Bereziki kezkgarriak dira "Arrano Beltzak" taldeak bidalitako mehatxuak, gizarte- eta herri-mugimenduko oinarriko militanteek duten arriskua, Segurtasun-aparatuek (DAS) egindako datu-baseen erabilera giza eskubideen defendatzaileen aurkako auzietan eta giza eskubideen defentsa legitimoaren kriminalizazioa.

Alde horretatik, jauzi handia dago arautegiaren eta jazarpena eta indarkeria jasaten dutenen babesaren artean.

- Giza eskubideen urraketa larrien zigorgabetasuna eta giza eskubideen defendatzaileen aurkako erasoak

Beharrezkoa ikusten du, bake-prozesuak martxa ona izateko eta etorkizunean gerraosteko prozesuari egoki aurre egiteko, erakunde armatuek eta, bereziki, Kolonbiako Estatuak —bere erantzukizun legal eta politikoagatik— ahaleginik handienak egitea indarkeria- eta zigorgabetasun maila horiek jaisteko. Alde horretatik, kezka berezia adierazten du Zuzenbide Penal Militarra zabaltzeko aukera dagoelako; izan ere, herrialdean giza eskubideak urratu ondoko zigorgabetasuna sendotu lezake (exekuzio estrajudizialak), eta egia, justizia, erreparazio integrala eta biktimei berriz ez gertatzeko bermea ukatzeko tresna izan daiteke.

Era berean, beharrezkoa da ohiko justiziaren arloan giza eskubideen defendatzaileek sufritzen dituzten erasoen inguruko ikerketak sustatzea, haietako gehienak zigorrik gabe geratzen baitira.

Giza eskubideen defendatzaileak aldi batez babesteko euskal programan parte hartu duten erakunde eta pertsonen dagokienez, Carlos Alberto Pedraza Salcedoren desagerpen eta hilketa **gaitzesten du**, eta **kezka** adierazten du Herrien Biltzarreko eta Gizarte-garapen Integralerako Elkarteko (ECATE) kideek sufritzen dituzten mehatxu, jazarpen eta seinalatzeengatik.

## Gomendioak

Honako hau gomendatzen diegu Kolonbiako erakundeei:

- Carlos Alberto Pedraza Salcedoren desagerpen eta hilketaren egile intelektual eta materialak ikertzea eta auzitara eramatea, eta ikerketa hori Fiskaltzaren Giza Eskubideen Unitatearen eta Ikerketarako Talde Teknikoaren (CTI) uztea. Giza eskubideen defendatzaileen kontrako erasoak ikertzea oinarritzko urratsa da zigorgabetasunarekin amaitzeko.
- ECATEk eta Herrien Biltzarrak UNPri bere kideak babesteko eskatu dizkion neurrian martxan jartzea. Berme kolektiboen beharrari erantzuna ematea eta profil ezberdinei zuzendutako babes-eskemak garatzea, eta baita bereziki arriskutsuak izan daitezkeen momentuak aurreikustea (2015eko hauteskundeak edo akordioen ondorengo garaia).
- Estatuak konpromisoa berrestea 1448 Legea erabili dutenak, lur-eskatzaileak eta biktimen foroetan parte hartu duten pertsonak babesteko, bake prozesuaren baitan.
- Desagertutako Segurtasun Sailaren (DAS) datu-baseen depurazio mailakaturia sustatzea eta nazioarteari horren inguruko informazioa ematea aldian-aldian.

Hala, Euskal Ordezkaritzarentzat funtsezkoa da giza eskubideen aldeko lana bermatzea, erakunde eta gizarte-mugimenduarentzat egokitutako babes neurri eraginkorrak hartzea eta erakunde komunitarioen lana aldarrikatzea, oinarritzkoa baita gizarte demokratikoa, berdintasunezkoa eta giza eskubideek indarrean izango dituen eraikitzeak. Giza eskubideekiko errespetuak zeharkako ardatza behar du izan, irekia eta bake-prozesua eraikitzeak oinarria emango diona, berau gerrarik gabeko egoera hutsa izango ez dela bermatzeko.

Espero du *Giza eskubideen defendatzaileak aldi batez babesteko euskal programa* sendotu egingo dela eta babes eta eragin politikorako balioko duela, Kolonbiako giza eskubideen aldeko erakundeei haiennazioarteko babes-sareak indartzeko eta, segurtasun-neurri handiagoekin, bakea eta justizia soziala lortzeko lanean jarraitzeko. Alde horretatik, programan parte hartzen duten erakunde publiko eta sozial guztiek arretaz jarraituko dute prozesua, eta babestutako pertsonen eta haien erakundearen egoerei etengabeko jarraipena egingo diete.

Eta, azpimarratu du Kolonbiako komunitateek eta gizarte-mugimenduek ausardia eta duintasuna erakutsi dutela indarkeriarik gabeko erresistentzia-proposamenak eginda eta, egunero, erakunde armatuen tiroen erdian, bizikidetzarako eremuak eraikitzearen alde eginda.